




BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1996ko ekainaren 28a. 39. zenbakia. Dohain banatzen da.



San Pedro jaiak
ASTEASUN



PATXINE

JATETXEA ASTEASU

69 10 25

Jai zorientsuak
opa dizkizuegu
herritar nahiz
kanpotik etortzen
zareten guztioi

GORA SANPEDRO



GURE
BEREZITASUNAK:

EUSKAL
SUKALDARITZA
ETA ETXEKO
POSTREAK

KALITATEA ETA
SEGURTASUNA ZURE
ZERBITZURA

URPA

AUTOBUSAK

☎ (908) 77 56 48

(24 orduak)

☎ 59 38 05

(Garajea)



Sorabilla auzunea, 53. Pol
ANDOAIN (Gipuzkoa)

fotocolor

ERREBELATUA ORDU I EAN

Zure argazki
denda



Kodak
EXPRESS
SERVICIO DE CONTROL DE CALIDAD

JOSE IGNACIO UNANUE
JUAN BTA. ERRO 1 - ☎ 59 43 32
20.140 ANDOAIN

1. AURKIBIDEA.
AIURRITARRAK

Jon Unanue López: "Euskalnautak".

2. GALDEZKA.

Eta zuk, ezagutzen al duzu Euskal Herria?

3-4-5. ANDOAIN.

Tolosako dultzaineroak.
Langabeziaren aurkako martxa.
Leyçaur-0 aldizkariaren argitalpena.

6-7. ASTEASU.

Atzoko eta gaurko San Pedroak: Nerea Urkola eta Angeles Uzkudun.

8-9. BILLABONA.

Etxez etxeko laguntza jasotzeko arauak.
Hirugarren adinekoen margo erakusketa.

10. ZIZURKIL.

Presoak Euskal Herriratzeko jarraipen batzordea.

11. BASERRIA.

Mari Kruz Urkola, kalez kale barazkiak eta esnea salduz.

12-13. ERREPORTAIA.

Ni homosexuala naiz; zu, zergatik ez?

14-15. ELKARRIZKETA.

Xabier Arzalluz: "Euskal Herrian ez gaude horren gaizki".

16-17. KIROLA.

Jose Ignacio Garmendia, hamazazpi urte Eibar-ko atezain.

18. ERRETRATU ZAHARRA.

19. ZER BERRI? / LEHIAKETA.

20. AGENDA


Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32
Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak.
Zuzendaria: Antxiñe Mendizabal.

Maketatzailea: Iñaki Garmendia. **Erredakzioa:** Antxiñe Mendizabal eta Ainhoa Oartzabal
Argazkiak: Manu Mujika, **Komikia:** Beñat Azurmendi. **Publizitate arduraduna:** Fernanda Iruza **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri.
Inprimategia: Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati).
Filmaketa: VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 ISSN: 11354-0614
Tirada: 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



EUSKALNAUTAK



YON UNANUE

Batek al daki zenbat diren, baina ez dira asko. Nautak direla, herriz, erraz ezagun dute, helburu bati begira baitabilta hipnotizaturik euskaldunen aintzira-txo espazialean barrena, zabuka: *euskararen normalkuntza, gizarte euskaldun bat osatzeko* ahalegin ezkergeaitokoan. Helburu duten horri buruz hitzegiteak, baina, higuina sortzeraino oka egingo da omen dauzka gehienak. Gizarajoak!

Ofizio askotarikoak dira (idazle, irakasle, maisu-maistra, midiku, itzultzaile, euskaltzain, biologo, kultura arduradun, etnografo, arpa-jole, kazetari, psikotiko...) baina beraiengan badute ezaugarri amankomunik: oparo eta gartsu hitz egingo dituzte herritarren kontzientziaz, etorkizunari elkarrekin aurre egiteaz, hizkuntza = herri proiektuaz, lexikogintzaz, etnografiaz, Internet sareaz edo CD-ROM-aren eragin antidiglosikoaz. I + G binomioaz ere hitzegingo dizute ziurrenik.

Denak, ordea, ez dira gure kaleetan bizi. Batzuk bene-benetako euskalnautak dira, gure gizartearekin (euskaldunon gizartearekin, jakina!) ahalik eta hartu-emanik gutxiena izaten dutena: izarrateko espazioan daude eskeririk eta hoditxo baten bidez baino ez dute euskal arnasik eta informaziorik hartzen, ahal dela inorekin zuzeneko harremanik izan gabe, gainera.

Azken horren ondorioz, euskalnauta askok ez dute elkarren arteko harremanik, elkar ezagutu ere ez dute egiten batzuetan, eta, bestetan, bi metroko tartean bizi arren sarri ignoratu egiten dira, edo irribarre zuri batez elkar agurtu. Nor bereari estekaturik bizi dira, bere mundutxoan.

Batzuek euskalgintzaren edo kulturgintzaren ekimen berriak eragiten espezializatu dira. Baina eragitetik egintzara tarte handia dago, eta tarte horren hasieran besteren bati heltzeko joera hartua dute ere. Beste batzuk badira, bene-benetakoak hauek, egungo euskal gizarteari "putokasorik" egiten ez diotenak, bere lanean burubelari ari dira horiek, urte hobexegoen esperoan. Gustora egingo genuke horiekin gutariko askok, baina ezin utziko dugu bakarrik gure ekintzaile zenbait!

Euskalnauten errurik larriena estrategia txukunik ez izatean datza. Euskaldunek, oro har, ez baitugu inoiz etsipenaren aurreko estrategia burutsurik izan, ez gizarte mailan, ezta azken urte hauetan gure administrazioetan ere. Eta nautak hor dabilta azkenerako demostratu beharrean euskalduna ez dela oso animalia inteligentea izan, akaso *genetikoki ez dagokiola* halakorik.

Orain euskalnautek euskara elkarte gehienak bilduko dituen Topagunea sortu berria dute Durangon. Pazientzia eskatu zitzaigun euskalnautei bertan, pazientzia puska batean topagune hori ibiltzen ikusi arteraino. Beharko pazientzia izan, azkenean, inoiz, orain arte buruan izan ez dugun zientziak argituko bagaitu.



ETA ZUK, EZAGUTZEN AL DUZU EUSKAL HERRIA?

Izaten dira, ia herria ezagutu gabe, muga guztiak zeharkatu eta munduko beste muturreraino iritsi direnak. Beste batzuk berriz, herria, inguruneak eta askoz urrutia-goko txokoak ezagutzeak ez ditu batere erakartzen. Azkenean, gehientsuenak etxean bezala beste inon ez dela egoten

esango dute. Euskal Herria nahikoa lurralde txikia da beste batzuekin alderatuz. Hala ere, jasotako iritzien arabera, iruditu zaigu Gipuzkoa bertako herririk gehientsuenak ez ditugula ezagutzen. Zeresanik ez, gainerakoak, eta mugaz bestaldekoak. Eta zuk, ezagutzen al duzu Euskal Herria?



Ane Aranzeta, ikaslea. Andoain.

Gipuzkoako herri txikiak ez ditut ongi ezagutzen. Alkiza eta horrelakoak adibidez. Eibar eta Bergara alde hori ezagutzen dut. Bizkaia ez dut ia ezagutzen, Bilbo izan ezik.

Araba eta Nafarroa, ezerrez, eta Iparraldea gutxiago. Gipuzkoatik ez naiz ia irten.



Eli Rivero, ikaslea. Asteasu.

Ez dut osorik ezagutzen. Orokorean hemen inguruko herriak ezagutzen ditut ongi. Nafarroa zertxobait ezagutzen dut, baina mugaz bestaldeko herriak ez ditut batere ezagutzen.

Hemendik kanpoko herriak ezagutzea asko gustatuko litzaidake.



Eli Palomino, ikaslea. Zizurkil.

Bai, pixka bat. Donostia, Tolosa eta inguruko herriak ezagutzen ditut. Gipuzkoako herrien artean ingurukoak bakarrik ezagutzen ditut. Beste herrialdeak ez ditut

ezagutzen. Nafarroa izan ezik: Erriberrira joaten naiz oporretara.



Eusebio Garmendia, jubilatua. Andoain.

Hondarribian jaio eta beti hemen bizi izan naiz, eta inguru hau ezagutzen dut. Bizkaia pixka bat ezagutzea tokatu zait lanegatik. Araba eta Nafarroa berriz, gutxi. Baionan adibidez,

izan naiz, baina ez dut ezagutzen. Alemanian izan naiz, eta Ameriketara berriz, bi aldiz.



Aitor Roteta, linterneroa. Larraul.

Ni Alkizakoa naiz, eta hemen inguruko herriak besterik ez ditut ezagutzen. Ez naiz hemendik irteten, eta beraz, oso gutxi ezagutzen dut Euskal Herria.



Amaia Carrillo, ikaslea. Billabona.

Bai, herri batzuk ezagutzen ditut. Mendigorri eta Erriberriko kanpinetara joaten naiz oporretara, eta beraz, Nafarroa pixka bat ezagutzen dut. Gipuzkoako itsasertzeko herri

batzuk ere ezagutzen ditut, baina Bizkaia eta Iparraldea oso gutxi.



ONDARRETA

TABERNA

Plater konbinatuak

Ogitartekoak

Pintxoak

Arkume eta txerrikume erreak enkarguz

Ondarreta 9, behea ☎ 59 36 27 ANDOAIN

S T O P

LIBURUDENDA

TESTU LIBURUAK

AUKERA ZABALA LIBURUTAN

(Ingelesean, frantsesean, italieraz...)

Agustin Leitza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03

TOLOSAKO DULTZAINEROAK

Lehenengo diska plazaratu berri dute

Tolosako dultzainero bandak baditu hogeit urte baino gehiago, eta gaur egungo hirukoak -Xabier Urdangarin andoaindarra, Joxe Manuel Agirre Andoaingo dultzaina eskolako irakasle tolosarra eta Juan Ramon Zipitria, "Zipi" tolosarra- beren lehenengo diska kaleratu berri dute. Jai giroko diska berritzailea da; dultzaina soinua entzuteko ezezik, beste musikatresna batzuek jantzitako dantzarako diska ere bada.

Dultzaina soinuak soilik egindako diskak zale-tuen eta adituaren artean baino ez zuela harre-
rarik izango, eta horregatik, jai giroan entzute-
ko eta dantzatzeko aproposa izan zitekeen diska egi-
tea bururatu zitzaientzen, dultzainari, bajua, gitarra, bate-
ria, teklatura, trikitixa eta perkusioa gehituz. Akelarre
taldearen laguntza paregabea izan dute horretarako. Eta
emaitza, dantza suelta, balsa, habanera eta beste
hainbat erritmo biltzen dituen hemezortzi pieza bizi eta
saltsero izan dira: "Dultzainaren indarra aprobetxa-
tuz festa giroko doinuak egitea bururatu zaigu", ze-
hazu digu Xabier Urdangarinek.

Diskaren helburua taldea ezagutzera ematea eta
musika eta doinu herritzaileak sortzea izan da. Bestal-
de, Lizarra eta Iruñeako dultzainero ospetsuez gain,
inork gutxi kaleratu du azken urteotan dultzaina doi-
nuri. Kaki Arkarazu gitarrajole ezagunak egin ditu dis-

ka herriaren teknika lanak, eta kasetak eta konpaktok
musikadenda eta taberna askotan daude salgai dagoe-
neko.

Andoaingo dultzaineroak

Herrian ere dultzainero banda osatu berri da. Ho-
rezaz gain gazte ugari ari dira eskolan jotzen ikasten.
Honez gero herrian eskaini dituzte saio batzuk, eta be-
ren azkenengo saioa herriko konpartsa berria lagun-
duz izan da.



KALETXIKIKO JAIK

San Pedro jaiak: ekainak 28-30

Ekainak 28, ostirala:

20.00: Kandido eta bere txikitxuei ongiatorria: trikitilariak, dultzaineroak eta txistulariak, buruhandiekin eta erraldoiekin batera. Goiko-plazatik Kaletxikira jaitsi ondoren, Kandidok, jaien iragarleak, lehen zuziria piztuko du.

23.00: Dantzaldia "IRATXO" taldearekin.

01.00: Oilasko hotza txanpainarekin Ontza elkartean.

Ekainak 29, larunbata:

11.30: Haurrentzako jolasak.

12.00: III. sagardo txapelketa.

16.00: Plater tiroketa txapelketa herrikoia, eta Kale-
txikiko II. mus txapelketa.

17.00: Toka txapelketa.

20.00: Afaria Ontza elkartean.

22.30: Kaletxikiko XI. danborrada nagusia.

23.00: Dantzaldia "AGIRREN" taldearekin.

01.00: Oilasko hotza txanpainarekin Ontza elkartean.

Ekainak 30, igandea:

09.00: Txistularien diana.


11.00: "URKI" dantza taldearen kalejira eta emal-
naldia.

12.00: Meza Berrozpeko kaperan.

14.00: VI. kaletxikitarren bazkari herrikoia.

19.00: Dantzaldia "TRIKIBELTZ" taldearekin.

LANGABEZIAREN AURKAKO MARTXA



Billabonarako bidean

CCOO-Euskadiko Langilearen Komisioak antolatuta, ekainaren 17tik 22ra bitartean Irun eta Altsasu lotu zituen langabeziaren aurkako martxa igaro zen herritik. Ekainaren 18an, astearte arratsaldean, iritsi zen berrogeita hamar lagun inguru Andoainera, eta gaua frontoian igaro ondoren, biharamunean goizean abiatu zen Goikoplazatik martxa, bide zaharrean barrena, Billabona aldera Tolosaraino. Besteak beste, IU-EBko Nicolas Pérez Barbón abiatu zen martxarekin batera herritik. Jose Antonio Pérez Gabarain alkatea ere ikusi genuen Goikoplazan.

BOSGARRENEAN ERE ISTILUAK

Urtarrilaz geroztik ekainekoa Jose Antonio Pérez Gabarain alkateak bertan behera utzi duen bosgarren udal batzarra izan da. Oraingo honetan, aurrekoetan bezala, Senideak areto nagusian zabalduetako "PSOE-PNV kartzeleroak" zioen pankarta izan da arrazoia. Aurrekoetan ordea, udal gobernuak, EAren partaidetzarik gabe, ateak itxita egin izan du batzarra; oraingo honetan herriz, alderdi politiko ezberdinetako ordezkariekin hitz egin ondoren, alkateak batzarra ez egitea erabaki zuen.



**ELEKTRATRESNAK
SUKALDERAKO HALTZARIAK**



Arteta kalea, 1 eta 3
☎ 59 12 26 - Faxe 30 03 45
ANDOAIN

GOAZEN JOLASTERA!

Abuztuan

Aurten aurreneko aldiz abuztuan herriko neska-mutilek "Goazen jolastera!" izeneko udaleku irekietan parte hartzeko aukera izango dute. Interesatuek Karrikako ludotekan eman dezakete izena arratsaldez, edo udaletxera joan daitezke argibide bila.

Uztailen ia 200 gaztetxok jolascan, herriko txokoak ezagutuz eta ibilaldiak eginez igaroko dituzte goizak udaleku irekietan. Aurre eskolako, eta B eta D ereduak bosgarren maila bitarteko ikasleentzat izan ohi dira udalekuak. Urtean zehar ikasi duten euskara ez ahaztea, eta gainera, jardunarekin hobetzea da ekimen honen helburua. Aurten, eta beste urte batzuetan izan diren eskakizunei erantzunez, Udalak abuztuan zehar udalekuak irekitzea erabaki du.

MILIKOST

**LIBURUDENDA
PAPERDENDA**

**IKASTETXE
GUZTIETARAKO
TESTU LIBURUAK
SALGAI DITUGU**

**ETA URTERO BEZALA...
ENKARGATU ORAIN ETA
FORRATUTA JASO
DOHAIN**

Kale Nagusia, 20 - ☎ 59 16 57 -
ANDOAIN

LEYÇAUR-0 ALDIZKARI HISTORIKOAREN ARGITALPENA

Andoingo Unibertsitate edo Lurraldearen azterketa historikoa

Lehenengo atalean Unibertsitate erakundearen azalpena eta azterketa egin du egileak. Andoaini dagokionez, Buruntza, Leizaur eta Zumea inguruko bizilagunek osatzen zuten Unibertsitatea, 1.800 bizilagun inguruk. Bigarren atalean garaiko gertaera politikoen berri ematen da: 1300. urtean juridikoki Donostiari lotuta zegoen Andoain, eta 1615ean Tolosarekiko autonomia lortzen duen denbora epean, Andoainen bizi izan ziren gertaera politikoen berri ematen da. Tolosarekiko independentzia lortzeko izan ziren gatazkak eta auziak aipatzen dira, batez ere.

Hirugarren atalean herriko agintarien, gobernua zutenen berri ematen da, eta era berean egoera ekonomikoa aztertzen. Bosgarren atalean espantu erlijiosoa landu du egileak, San Martin parrokiaren gora-beherak, besteak beste. Azkenik, garaiko herriko baserri eta etxeen historia bildu da liburuan: izenak, bertako familiak eta etxearen historia, hori guztia 130 argazki bikainez ilustratuta. Horrezaz gain, liburuan agertzen diren pertsonaia guztien historia laburru agertzen da liburuaren azkenaldean, aurkibide gisa.

Luis Miguel Diez de Salazar zenak eta Rosa Aierbek egin duten lana Gipuzkoa osoan dagoen era horretako bakarra da, eta zalantzarik gabe, Gipuzkoako historiari begira ate eta bide berriak urratu ditu. Liburuaren ezauzgarrietako batzuk bere zehaztasuna eta zorroztasuna, hala nola bere erakargarritasuna dira: edozeinek irakurtzeko moduko historia liburua da.

Liburuaren aurrehistoria

1990. urtean Andoingo sorreraren 375. urteurrenaren ospakizunen barruan, proiektu berri bati eman zitzaion hasiera: Leyçaur aldizkariari, hain zuzen ere, Andoingo ikerketa historikoen aldizkariari. Andoain hiribildu bihurtu zeneko historiaren ikerketa, zortzi urte zituela Burgosetik Andoainera etorri eta bertan bizitzera egin zuen Luis Miguel Diez de Sa-

Luis Miguel Diez de Salazarrek, herriko historialari zenduak, hasi eta Rosa Aierbe ikerlariak, bere emazteak, jarraitu zuen lanaren fruitu oparoa andoindar ororen eskuera dago dagoeneko: 1615. urte aurretiko herriaren azterketa historikoa, hau da, Unibertsitate edota Lurralde izateari utzi eta hiribildu bihurtu bitarteko Andoingo historia. "Andoain, de tierra a villazgo (1379-1615). Un caso modélico de preautonomia municipal en Gipuzkoa"; horixe da hain zuzen ere, ia 900 orrialde dituen liburuaren izenburua.

lazar historia ikerlari oparoari eskaini zitzaion. Urtebeteren buruan, gaixotasunak jota, hil egin zen, eta bere emazteak, Rosa Aierbek eman zion jarraipena ikerketari.

Udal agintariak nahiz Rosa Aierbe-

ren lana gertutik ezagutu dutenek, eskerronik beroenak eman dizkiote. Rosak berak, egoerarik zailenetan ere, eta Luis Miguel zenak, ordaingabeko ekarpena egin diotelako Andoaini nahiz andoaindarrei.



Udal ordezkariak gain, J. A. Rodriguez aldizkariaren bultzatzailetako bat, Kutxa Fundazioko ordezkaria den Koldo Okaria, Eusko Ikaskuntzako lehendakaria Gregorio Monreal, eta Rosa Aierbe, liburuaren egilea egon ziren aurkezpenean

<p>ASESORIA GESTORIA ASEGURUAK</p>	<p>ALDAMA - TAPIA</p> <hr/> <p>KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!</p>
<p>Kaleberria 22 Telefonoa 59 44 76 - 30 01 67</p>	<p>20140 ANDOAIN</p>

ATZOKO ETA GAURKO SAN PEDROAK

Txistularien kalejirak dira, urteak joan eta urteak etorri, aldatu ez den ohitura

Ekainaren hogeita zortzia, San Pedro eguna.

Oporrak, ikasleenak behinik behin, hasi dira, eta hondartzari bisitatxo bat edo beste egin diogu, jadanik. Beraz, uda ondo hasteko, jaietara joatea besterik ez zaigu falta.

Aukera hori ematen digute Asteasuko San Pedroak, eta aurtengo jaiak zer eskaintzen diguten galdetzeko nahiz garai batetako festei buruz jakiteko, Angeles Uzkudun eta Nerea Urkolarekin bildu gara.



Aiurri: *Garai bateko festetan dantza ugari egiten zuten; egungoetan, zer egiten da? Eta zein da ekintzarik aipagarriena?*

Nerea Urkola: *Urtero egiten dute dantzariak euren dantza saioa, baina egun bakar batean izaten da hori. Gauzarik aipagarriena, azken urteotako ganadu azoka da, baina aurtengoan, iraitlean egingo dute. Bestalde, urtero jai berdintsuak izaten dira: umeen eguna, zabarren eguna, koadrilen bazkaria... Herri kirola asko eta txapelketa ugari ere ospatzen dira.*

Ai: *Jaietako zein egun dira boberenak?*

N.U.: *Lebenengoa eta azkenekoa. Guztiak disfrutatzen ditugu, baina lebenengo egunean, herritasuna dela eta, oso ondo pasatzen dugu. Azken egunean herri, herrikoak bakarrik gelditzen garenez eta azken eguna denez... Koadri-*

NEREA URKOLA: "BAKOITZAK BERE EGUNA ETA GUSTOKO EKINTZAK EGITEKO AUKERA DAUKA"

Nerea Urkola Saraskate baserriko asteasuar gaztea da. Jaiak herriko gazteen eta Udalaren artean antolatzen dituzte, nahiz eta aurtengoan Nereak bilera gutxitan hartu duen parte. Hala ere, egungo San Pedroak nolakoak diren eta gazteek nola bizi dituzten oso ondo azaldu digu. Gainera, bera da goizero txistua joz aurreko gaueko parrandazaleak esnatzen dituen "errudunetako" bat.

len egunean ere oso ondo pasatzen dugu.

Ai: *Herritarrek hartzen al dute parte herriko jaietan?*

N.U.: *Herri kirolak herritarren artean egiten dira, eta beraz, jende askok hartzen du parte. Bestalde, haurren jolasak antolatzeko beti egoten da jendea prest. Kanpotarrak herri, parranda egitera etortzen dira, asteburuetan. Azken urteotan ordea, jende gutxiago etortzen da. Izan ere, egun batetan berri askotan dira jaiak.*

Ai: *Herriko txistu taldeko partaide zara, eta jaietan, txistu kontzertu bat ematen duzue urtero. Horrezaz gain, goizero jaikitzen al zara diana jotzera?*


N.U.: *Bi egunez bebin jotzen dugu diana, baina leben, egunero zegoen diana; batzuetan txistulariak ateratzen ginen eta besteetan herri, trikitilariak. Orain gu bakarrik ateratzen gara. Bestalde, San*

Pedro egunean meza nagusirako Udalak egiten duen ibilbidean ere jotzen dugu txistua.

"Goizak oso tristeak izaten dira"

Ai: *San Pedrotako zein gauza aldatuko zenuke? Eta zein gauza ez zenuke aldatuko?*

N.U.: *Egun bakoitza herriko gazte, edadetu nabiz umeentzat antolatuta dago. Beraz, bakoitzak badauka bere gustoko eguna eta ekintza. Goizak izaten dira oso tristeak, eta hori aldatuko nuke. Bestalde, herriko gazteen artean oso barreman ona dugu, eta Asteasuko nabiz kanpoko jaietan oso ondo pasatzen dugu elkarrekin gaudenean. Oso garrantzitsua iruditzen zaizkigu herriko gazteak bata bestearekin ondo konpontzea. ■*



ANGELES UZKUDUN: "LEHENGO JAIK HERRIAK EGITEN ZITUEN, EZ ZEGOEN EZER ANTOLATU BEHARRIK"

Angeles Uzkudun duela hirurogeita hamasei urte jaio zen Apretero Enean. Beraz, bere jaiotetxeak aditzera ematen duenez, apreta asko egindakoa dugu Angeles. Azken urteotan berriz, bizilagun askoren ilea txukundu eta apaindu du. Horrezaz gain, herriko haur askoren dantza irakaslea izan da.

Aiurri: Nola gogoratzen dituzu zure gazte garaietako San Pedroak?

Angeles Uzkudun: Oso alaiak ziren orduko jaiak, ederrak. Ni neska koskorra nintzeanean, San Pedro egun bezperan hasten ziren jaiak, eta egun horretan, kalejira bat egiten zen kalean. Elizmendiraino joaten ginen. Paulo Galdos eta Jose Galdos anaiek jotzen zuten txistua, eta behin kalejira amaituta, udal txistuarekin dantzan aritzen ginen aspertu arte. San Pedro egunean berriz, goizeko seietan diatza jotzen zuten bi txistulariek: etxe bakoitzean kanta bat jotzen zuten, eta trukean, dirua ematen zieten. Arratsaldean berriz, Billabonako musika banda, Lizarrako dultzaineroak, Andoaingo Los Hermanos Churreros orkestra, eta musikari gehiago etorri obi ziren. Oilasko jokoa ere egiten zen garai batean, eta herri kirolak ere izaten ziren. Don Severo alkateak ere gauza ikusgarri asko antolatzen zituen festetan.

Ai: Musikalari eta txistulari ugari hurbiltzen ziren San Pedrotara. Ondorioz, asko dantzatuko zenuen, ezta?

A.U: Gogotik egiten genuen guk orduan dantza! Jendea erruzkoa etortzen zen arratsaldeetan Asteasura dantza egitera.

Pasodobleak, fandangoa, arin-arina eta antzeko piezak dantzatzeko genituen, eta txistulariek jotzen zituzten pieza guztiak. Dantza-soka zen ordea, dantza saio famatuena. Baina urtean zehar bestela ere dantza asko egiten genuen. Izan ere, Galdos anaiek jaiero-jaiero jotzen zuten txistua, eta beraz, umetatik ikasten genituen dantzak: guk, neskek, batez ere.

"Gogotik dantzatzeko genuen herriko jaietan!"

Ai: Zer da dantza-soka?

A.U: Mutilek nesken aurrean aurrekoa dantzatzea da dantza-soka. Horretarako, jende artean zeuden neskek ateratzen zituzten mutilek plazara, eta aurrekoa dantzatu ondoren, plazako petrilean eseri eta pipererrokilak jaten zituzten. Ondoren, korro bandi bat egin eta fandangoa dantzatzeko zuten guztiak. Dantzariak ez ziren oso ikasiak, baina ederki moldatzen ziren: oso dantza herrikoia zen, Paulo txistulariak zuzentzen zuen guttira.

Ai: Jaietan etxera goiz bueltatu beharke zenuen...

A.U: Are Mariak aditzerako etxera joan behar izaten genuen. Billabona eta inguruko beste herrietako jaietara joaten ginenean

gaizki ibiltzen ginen bueltatzeko garaian. Korrika saio ederrak egin ditugu etxera goiz ailegatzeko! Inguruko herrietako jaietara asko joaten ginen; Billabonako Santiagoak oso maiteak genituen.

Ai: Batek baino gehiago bere senargaia edo andregai jaietan aurkituko zuen, ezta?

A.U: Noski, baserriko neskek orduan jaisten ziren herrira, jendea orduan elkartzen zen. Tolo-satik eta inguruetatik jendea asko etortzen zen, eta famatuena Donostiako tabakalerak ziren: tabakoa egiten zuten langileak, alegia. Oso neska politak ziren, eta herriko mutilak... Jesus!

Ai: Zer da orduko jaietako gauzarik aipagarriena? Zer botatzen duzu faltan?

A.U: San Pedrotan etxea bete jende edukitzen genuen. Kanpoan bizi ziren senide ugari etortzen ziren etxera, eta bazkari ederrak egiten genituen. Soimua entzun eta berebala atarira ateratzen ginen: etxera sartu eta irten ibiltzen ginen. Orain berriz, etxean sartuta bizi gara, askotan ez dakigu kalean zer dagoen. Egungo jaietan berriz, ez dago ezer arratsaldeetan; ikusteko gauza gehiago baldin badaude ere, jendeak gutxiago hartzen du parte festan. Lehen herriak egiten zituen jaiak, ez zuen inork ezer antolatu beharrik. Gutxi behar izaten genuen orduan jaiak egiteko. ■

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA JASOTZEKO ARAUAK

Leading Service S.L. enpresa kontratatu dute lana egiteko

Etxeko lanak egiteko zailtasuna dutenek, familia egoera larria bizi dutenek, edota etxebizitza nahiz osasun baldintza kaskarra dutenek eska dezakete etxez etxeko laguntza zerbitzua udal txean. Interesatuak astean 10 orduz etxeko lanak egiteko laguntza jasoko dute, eta behar izanez gero, baita laguntza fisikoa eta morala ere. Leading Service S.L. enpresak egingo ditu lan horiek guztiak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Udalaren dirulaguntzaz.

Etxez etxeko laguntzaileek, otorduak prestatu, etxeko garbiketa egin, eta behar izanez gero, garbiketa ere egingo dute. Krisialdi larri baten ondorioz denboraldi baterako arreta behar duenari ere konpania egingo dio etxez etxeko laguntzaileak. Era berean, behar izanez gero, elikadura nahiz garbiketa ohitura txarrak kentzen saiatuko da, eta etxea egokitzeko lanak egiteko gestioak ere egingo ditu, besteak beste.


Laguntza jasotzeko baldintzak

Herrian bizi eta udal erroldan inskribaturiko guztiak izango dute zerbitzua jasotzeko eskubidea. Baina laguntza jaso ahal izateko, baldintza batzuk bete behar dituzte

eskatzaileek: eguneroko bizimodua egiteko gaitasunik ez izatea da bete beharreko lehenengo baldintza. Herriko sendagileak ziurtatu beharko du hori. Bestalde, etxebizitza egoera eta kokagune zailean edukitzea baloratuko da. Eskatzailearen osasun egoera eskasa, familiarekin dituen harreman txarrak, eta familaren egoera ekonomiko kaskarra balora-

tuko dira laguntza emateko garaian.

Interesatuaren egoera ekonomikoa ez da laguntza emateko edo ez emateko baldintza izango. Hala ere, erabiltzaileak zerbitzuaren gastuaren zati bat ordaindu beharko du, ahal duen neurrian. Udaleko hazienda sailak finkatuko du zerbitzuaren gastuak eta erabiltzaileak ordaindu beharreko zenbatekoa.



BERTSO ETA IPUIN LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

Ekainaren hamalauan jaso zituzten bertso eta ipuin lehiaketan parte hartu eta irabazi zuten ikasleek sariak. Hamabi lagun saritu zituzten, eta boleibolean jokatzeko jantziak, kirol jantziak, eskolako materiala, eta liburuak jaso zituzten sari gisa. Amaia Agirrek eta Jon Zalduak aurkeztu zuten ekitaldia, eta bertsoan esan zituzten irabazleen izen-abizenak. Gainera, Jon Zalduak berak duela pare bat urte irabazi zuen bertso lehiaketa. Oskarbi txiki abesbatzako abeslariak eta herriko trikitilariek animatu zuten ekitaldia, eta bukarran, gozokiak banatu zituzten bertan bildutako haurren artean.

**TAXI
ZIZURKIL**

- Taxi zerbitzu orokorra
- Ezindu fisikoentzat ere moldatua

Tel. 69 08 23 - Tel. mugikorra - 908 - 57 59 00

Pello Ezeiza



AMAIA
GIRRE
ZPIAZU

**MEDIKUA
OSTEOPATA**

RPS: N.º 121/96

•LUNBALGIAK •ARTROSIK
•GIHARRETAKO MINAK ETA ABAR...

KALE NAGUSIA, 7 - 1. ESK. ☎ 59 40 02
20140 ANDOAIN

HIRUGARREN ADINEKOEK EGINIKO MARGO ERAKUSKETA

Ekainaren 24tik 30era Gurea zinema aretoan ikusgai

Hirugarren adineko billabonatarrek ez daude geldirik, ez horixe. Eskulanak egin, jubilatuen elkartera joan, hitzaldiak entzun, eta antzeko ekintza gehiago egiten dituzte batek baino gehiagok. Geldirik ez dauden adibide dugu aste honetan ikusgai dagoen margoen erakusketa. Bertako koadroak herriko adineko zazpi margolarienak dira. Sarea Berriren ekimena izan da erakusketa.



Pintura zaletu ugari daude herrian

Angel Ugartek, Julia Aldazek, Margarita Gacesek, Maria Josefa Dorronsorok, Dabid Barandiaranek, Jabier Berasaluzek eta Pili Zapiraneke etxean gordeta zituzten margoak hartu eta Gurea zinema aretoan zintzilikatu dituzte. Guztiak dute margotzeko zaletasun izugarria, eta ia gehienak margotzen ikastera joaten dira, gainera: Maria Josefa eta Jabier Tolosako Kultur Etxera joaten dira astean lau aldiz; Julia eta Margaritari, aldiz, Biltoki jubilatuen elkartean eskulanak egiten eta margotzen irakasten diete; Dabidek, ordea, berak bakarrik ikasi ditu margotzen dute etxean.

Berrogeita hamar margo inguru jarri dituzte, eta guztiak oleoz eginak dira. Paisaiak, baserriak, lorak, eta itsasertzak margotu dituzte, besteak beste. Gehienak argazki edota postalen kopiak dira, "oso

zaila baita zuzenean margotzea". Aipatu behar da, ordea, Dabidek Billabona-Zizurkilgo zubia inolako argazkirik erabili gabe margotu duela; zuzenean, alegia.

Margotu eta ongi pasatu

Jubilatu ondoren hasi dira guztiak margotzen. "denbora librea eduki dugunean", eta margotzeak asko lasaitzen duela esan digute. Ilusio handiarekin margotzen dute, eta era berean, bizitzeko ilusioa ematen omen die margotzeak: "Denbora pasatzeko eta depresioak sendatzeko oso egokia da".

Erakusketaren bitartez, hirugarren adinekoek gauza asko egiten dituztela adierazi nahi izan dute, eta horrezaz gain, zaletasun bera dutenak elkartzeko eta ezagutzeko balio izan duela uste dute. Bestalde, Sarea Berriko lagunek esan digutenez, aukera izanez gero margotzeko ikastaro bat antolatuko dute herrian.



ILLUMBE, S.L.
Autoelektrizitatea

LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK
Pablo Gorosabel, 48
☎ 65 54 76 **TOLOSA**
Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa
☎ 59 24 11 **ANDOAIN**



KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

**KIROLAK
EDURNE**

Kaletxiki, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN



PRESOAK EUSKAL HERRIRATZEKO JARRAIPEN BATZORDEA

EAJ-PNVk, HBk eta herriko talde ugari osatzen dute batzordea

Euskal presoak Euskal Herriko gartzeletara ekartzeko helburuarekin jaio da udal jarraipen batzordea. Hiru bilera baino gehiago egin dituzte jadanik, eta bilera bakoitzean ugarituz doa herriko taldeen partehartzea. Bileretan batzordearen izaera eta dinamika finkatzeaz gain, erabaki batzuk hartu dituzte: herritarrei batzordearen berri ematea eta herriko presoak dauden gartzeletara bisitan joateko baimena eskatzea.

Iaz euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko mozioa onartu zuen Udalak. Urte honetan zehar, Senideak elkarteak behin baino gehiagotan joan da udal batzorrera mozioan onartutako erabakiak praktikan jartzeko eskatuz. Azkenean, joan den hileko udal batzarrean bildutako eta Juanjo Aranburu alkatearen ekimenez, udal batzorde bat osatzea erabaki zuten. EAJ-PNV eta HB alderdiak batzordearen alde agertu ziren, baina PSE-EEK eta EAK, ez dute batzordean parte hartuko; PSE-EEK, bere esanetan, ez du inoiz parte hartzeko asmorik; EAK, ordea, batzordean hartutako erabakiak jarraitu eta aztertuko ditu, baina gaiaren inguruan udal batzarretan jendeak erakutsi duen mehatxu jarrera aldatu arte ez du parte hartuko.

Jarraipen batzordea, bestalde, berehala hasiko da herritarren artean batzordearen sorreraren, arazoien, eta Udalak onartutako Senideak-en mozioaren, hala nola batzordean parte hartzen duten taldeen zerrendaren berri ematen. Era berean, herriko presoak bisitatzea joateko baimenaren zain daude batzordeko kideak.

Senideak-en eta alkatearen balorazioa

Senideak-en esanetan, gauza berria da horrelako batzordea, eta beraz, gauza positiboa iruditzen zaie: "Ez dugu gauzak estaltzeko batzorde bat izatea nahi", eta borondatea izanez gero gauza asko lor daitezkeela uste dute. Juanjo Aranburuk, aldez, batzordeak giza eskubideak defendatzen dituela esan du, "ez da inongo alderdi politikoko kidea izan behar bori eskatzeko", gaineratuz. Juanjo Aranburuk, bestalde, Tolosaldeko alkateei idatzi bat bidali die duela gutxi, "presoak Euskal Herrira ekartzea eta tratu gizakoiagoa ematea eskatuz". Ez ditu oraindik sinadura guztiak bildu, eta erabakitzeke dauka idatzi horiekin zer egin.

Orain arte bileretan parte hartu duten taldeak honako hauek dira: San Millan parrokia, Kostata gazte asanblada, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Sortzaile kultur elkarteak, Arantzazuko Amaren eliza, altereofilial taldea, Kultur Etxea, Elkarri, Danena kirol elkarteak, Senideak, Herri Batasuna eta EAJ-PNV alderdiak.



JOSE ANTONIO ARDANZA LEHENDAKARIA HERRIAN Marie Brizard enpresak kalitatearen ziurtagiria jaso du

Marie Brizard-ek bere produktuen kalitateagatik nabiz enpresaren prestigioagatik jaso duen ziurtagiria izan da lehendakaria herrira etortzeko arrazoia. Hilaren hemeretziaren etorri zen lehendakaria, eta enpresa ikusi eta arduradunak zoriondu ondoren, enpresako hainbat kideekin batera bazkaldu zuen. Aldez aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiko arduraduna den Rosa Maria Diezek, AENORko lehendakaria den Jesus Larrañagak, eta Marie Brizard enpresako Paul Glotin lehendakariak prentsaurrea eskaini zuten Marie Brizarden kalitate altuaz eta ziurtagiriaren garrantziaz hitz egiteko: ziurtagiria jaso duen edari eta likore enpresa bakarrenetakoa da.



Jose Antonio Ardanzak lantegia bisitatu zuen

Billabona

MARI KRUZ URKOLA

Kalez kale barazkiak eta esnea salduz

Anoetan bizi da Mari Kruz Urkola, Sarobe Etxean, hain zuzen ere, hala ere Billabonan Anoetan bertan baino gehiago ezagutzen dutela iruditu zaigu. Mari Kruzek urte luzeak eman ditu Billabonan ia egunero, zaldiz lehenengo, gurdiz lagunduta geroago, eta kotxez azken urteotan esnea eta barazkiak banatzen. Gutxi dira berea bezalako eginkizunetan ibiltzen direnak. Gaur egun semeak egiten ditu bere lanak, hala ere astearteroko azoka eguna aprobetxatzen du bere betiko bezero eta lagunekin harremanetan jarraitzeko.



Mari Kruzek oso gogoko du baratzako lana

Barazkiak jateko garai ezin hobea da oraingo hau, eta Mari Kruz gustura dago urteetan egin duen "parrokiarekin" eta egiten dituen salmentekin. Esnea garai batean baino gutxiago saltzen da: "Jendeak nabiaigo du denda bandietan kajak erosi". Hala ere, aurrerantzean ere esnea saltzen jarraituko dute; ontziratuta hemendik aurrera. Barazkiei dagokionez, herriz, eramandako guztia saltzen duela esan digu. Den-

dari batzuei ere saltzen dizkie, baina jendeari zuzenean saltzea gustatzen zaio, batez ere, Mari Kruzi.

"Tratamenduak utzi, eta baratzan lanean ikasten ari gara berriro"

Tomateak, porruak, letxugak, azelgak, tipulak, babak, azak, nahikoa urriak diren ilarrak hazten ditu Mari Kruzek baratzean; guztiak barazki biologikoak dira, gainera; batere tratamendurik gabekoak: "Orain dela urte batzuk hasi gara barazkiak berrera hazten, alabak erakutsita; gu beti aritu izan gara etxean ikusi bezala, eta orain gauza berriak ikasten ari gara". Tratamendurik gabe, arazorik ba ote duten galdetu diegu, eta ezetz erantzun digu: "Jakin egin behar da, noiz landatu, eta zein barazkiren ondoren, hortxe dago gako". Ba-tzuetan aleren batzuk galtzeko arriskua izaten dutela adierazi digu, edota gutxiago jasotzen dela, baina azken finean, merezi duelakoan dago; bezeroek horrela erakutsi diote, behintzat.

Aurrerapena

67 urte dauzka Mari Kruzek. Bere lambidean ez omen da jubilaziorik hartzen, eta besteak beste, horregatik jarraitzen du horren gustoko duen baratzean lanean. Bestalde, gaur egun baserriko lanek garai batekoekin zerikusirik ez dutela iruditzen zaio: "Garai batekoak bai latzak!". Gaur ere baserrian lana gogor egin behar dela uste du, baina tresneria berriak asko laguntzen omen du.

KIROL JANTZIAK

Litana

Ama Kandida etorbidea, 6 Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47


ANDOAIN

GOROSTI

HERBORISTERIA

- DIETISTA
- BARATZAKO
- FRUITU NATURALAK
- INTSENTSUA
- KANDELAK

Txermin kalea 13, behea
☎ 69 20 56
Billabona



NI HOMOSEXUALA NAIZ; ZU, ZERGATIK EZ?



† Ekainak 28: gay eta lesbienen nazioarteko eguna

Gay eta lesbienen nazioarteko eguna da gaur, ekainak 28. Hori dela eta, Gipuzkoan EHGAM taldeak, Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendua, eta Gipuzkoako lesbiana feminista kolektiboak ekitaldi batzuk antolatu dituzte: besteak beste, arratsaldeko zortzietan Donostian izango den manifestazioa. Homosexualitateari buruz hitz egiteko, hain zuzen ere, elkartu gara Donostian duten egoitzan, Joxean Madinabeitia andoaindarrarekin, Mabi Aurtenetxe hernaniarrarekin eta Nati Rufo errederiarrarekin. Homosexuala izateak inguruan beti eragiten ditu galdera eta harridura ikurrak. Guk ere antzeko jarrera agertu dugu, nonbait, eta era honetan erantzun digute xalo-xalo: "Ni homosexuala naiz; zu, zergatik ez?"

Duela 27 urte hasi zen Estatu Batuetan gay mugimendua antolatzen. Garai hartan, artean, homosexualak biltzen ziren lokaletan polizien erredadak eta detentzioak ohikoak izaten ziren. 1969ko ekainaren 28an, ordea, inguru hartako gay eta lesbianak erasoari aurre egin eta beren askatasun eskubidea aldarrikatzen hasi ziren. Ondorengo egunetan istilu ugari egon zen kaleetan, baina azkenean, poliziari aurre egitea lortu zuten gizon-emakume talde batek. Geroztik, ekainaren 28an gay eta lesbienen nazioarteko eguna ospatzen da. Mugimendua mundu osoan zehar asko zabaldu da, hala ere, aipatzekoa da orain dela gutxi



Joxean andoaindarra eta Mabi hernaniarra

arte Espainiako kode zibilak homosexualak pertsona arriskutsutzat hartzen zituela.

Euskal Herrian 1977. urte inguruan sortu zen gay eta lesbiana mugimendua. EHGAM sortu zen hasiera batean, gay eta lesbianak bilduz. Baina feminismoa indartzearekin batera, bi taldeak banatu egin ziren, eta banaketa horretatik sortu zen, hain zuzen ere, lesbiana feminista kolektiboa.

Bi erakunde hauen helburuak zabalak dira oso, baina batez ere, beren asmorik nagusia hor daudela, existitzen direla eta gainerakoen giza eskubide berberak dituztela aldarrikatzea da. Besteak beste, gizarteak homosexualitateari buruz duen iritzi eta ikuspegia txarra edota okerra aldatu nahi dute, askatasun sexuala eskatzen dute, eta heterosexualitatea, aukera sexual bakarra denik ukatzen dute.

"Elkarteak ez da gure babesleku edota aterpea-zehaztu digute, alderantziz, gure pentsaera, bizimodua eta ikuspegia gizarteari eman nahi dizkiogu ezagutzera, argi dago eta, gaiaren inguruan izugarritzko bipokresia eta manipulazioa dagoela". Bestalde, homosexual askok lagun

bila eta laguntza bila ere jotzen dute, gizarteak homosexualakiko agertzen duen jarrera oso gogorra izaten baita batzuetan.

Nork bere burua aurkitu

"Zer da gay edota lesbiana izatea?", galdetu dugu. "Erakusleiboan bi beroki daude, horia bata, urdina bestea. Niri horia gustatzen zait, zuri urdina; zergatik jarri bebar dute, beraz, urdina?", horixe da Joxeanen iritzia. Gizon edota emakume bat gay edota lesbiana dela konturatzea esperientzia gogorra izan ohi da normalean, baina pozgarria aldi berean: "Zentzazio ezezaguna, berria somatzen duzu, baina beti da pozgarria nork bere burua aurkitzea", zehaztu digute. Lehenengo momentuko zorion aldiaren ondoren, ordea, borroka latza jasan behar izaten du homosexualak, inguruneak ez baitu askotan oso ongi hartzen. Familiaren, lagunaren eta lankideen kontrako iritzia egin behar izaten dio normalean aurre. Familia eta lagunaren arbuioa izan ohi da hasieran latzena, hala ere, gure hiru elkarriketatuek adierazi digutenez, normalean, azkenean, familia eta lagunak izan ohi dira babesik eta indarrik handiena ematen dutenak.

Homosexualitateari buruzko aurrititzi eta topiko asko daude, eta horiek argitu nahian homosexuala jaio ala egin egiten den galdetu dugu geuk ere: "Emakume batetaz maitemindu nintzenean konturatu nintzen lesbiana nintzela -esan digu Natic- dena den, aurretik gizonetzko batekin egon nintzen harremanetan, eta inork ezin du esan etorkizunean zer gertatuko den. Maitasun sentimendua ez da aldatzen maite duzuna emakumea ala gizonetzkoa izan".

Topikoetan topikoena

Topikoetan zabalduena homosexualak sexuarekiko daukaten grina izango da, ziur aski. "Gizonetzkoak gustatzeak ez du esan nahi gizonetzko guzti-guztiak gustatzen zaizkizunik-zehaztu digu Joxeanek-, eta gainera, homosexualitatea aipatzen denean, sexua datorkio jende guztitari burura, ez da inoiz maitasunaz, adiskidetasunaz, musu edo-

ta lastan batzuetaz hitz egiten". Nati eta Mabi ere iritzi berekoak dira: "Lesbiana zarela esanez gero, bizitza bonetan hori baino ez zarela ematen du: gu lesbianak gara, baina lehenengo eta behin, gizakiak gara, emakumezkoak, eta eguneroko bizitzan beste bainbat gauza ere bai". Lesbienei dagokionez, aurrititzi hori guztiz okerra dela ziurtatu digute: "Heterosexualekin alderatuz, emakumeok, geure artean, sexu gutxiago egiten dugu". Dena den, esan digute-nez, badago harreman homosexual eta heterosexualen errepikatu ohi den joera: estatistiken arabera, gay-ak dira, gizonetzkoak alegia, sexu harreman gehiago izan ohi dituztenak, heterosexuak ondoren, eta lesbianak, azkenik. "Antza denez, egia da, gizonetzkoek sexu gogoa daukatenean, maitasunari ez diotela horrenbeste garrantzirik ematen, eta errazago dauzkatela sexu harremanak; emakumeek, berriz, bezkuantzagatik edo, badirudi sexuaz gain, beste zer-bait ere behar dugula", esan digu Natic. Joxean, Nati eta Mabi batzuetan behin eta berriz homosexualak direla adierazteak amorrazi egiten ditu: "Heteroxualei inork ez die beren joera edota zaletasun sexualak zeintzuk diren galdetzen". Hala ere, badakite borroka batean murgilduta daudela, eta jendaurrean beren iritzia eta bizimodua agertuz gizartearen ikuspegia aldatu nahiko lukete. Horrez gain, gizartean lesbianek gay-ek baino irudi okerragoa dutela uste dute Nati eta Mabi: "Emakumea, homosexuala ala heterosexuala izan, betidanik sexuan izan duen diskriminazioaren ondorioa da hori".

Errenderia, Hernani, eta Andoain batez ere, ez dira oso herri handiak, eta homosexualak horrelako herrietan edota txikiagoetan zein girotan ibiltzen diren galdetu diegu. Gure hiru solaskideei ez zaie dagoeneko jendaurrean homosexualak direla esatea axola, baina egia da herri txi-



Nati Rufo errenderiarra

kietan presio handia jasan behar izaten dela normalean; zer diren eta besteek jakingo ote duten beldur izaten dira. Horregatik, isilean eta ezkutuan ibiliz beste homosexual batzuekin harremanetan jartzeko duten zaletasunagatik, asko hiriburuetara, giro jakina duten tabernetara joaten direla esan digute. Hala ere, gay eta lesbianen mugimendua aurrera doala sinestuta daude, are gehiago, gizartearen harrera horren txarra izango ez balitz, gure artean uste baino homosexual gehiago daudela konturatuko omen ginatete. ■

Joxean Madinabeitia:

Amorrazio handiena zera esaten dizutenean ematen dit: "Aizu, niri berdin zait zu izatea, baina ni behintzat ez naiz, eta..."

Nati Rufo:

Emakume batetaz maitemindu nintzenean konturatu nintzen lesbiana nintzela

Mabi Aurtenetxe:

Lesbiana zarela esanez gero, jendeari iruditzen zaio zure bizitza osoa sexuaren inguruan bakarrik antolatuta dagoela

1996ko Ekainak 28 Junio 1996
 Día Internacional

GAY-LESBIANA
 GAY-LESBIANA


Tfno.: 900.110.111

EUSKAL HERRIKO GAY ASKAPEN MUGIMENDUA
 GIPUZKOAKO LESBIANA FEMINISTA KOLEKTIBOA

XABIER ARZALLUZ

"Euskal Herrian ez gaude horren gaizki"

Andoaingo EAJ-PNVk hilabeetan eskainitako Politika Plazara hitzaldi egitarauari amaiera emateko Xabier Arzalluz izan zen hizlari herrian. "Euskal Herria, oraina eta geroa", horixe zen hitzaldiaren izenburua, eta hain zuzen ere, gai horren inguruan aritu zen, hala nola entzuleek egin zizkioten bestelako galderen inguruan. Bide batez, herriko jeltzaleek aditzera eman zuten, inork orain arteko hitzaldiak idatziz jasotzeko interesik izango balu, batzokian eskatu besterik ez duela.



Politika Plazarako azken gonbidatua

Ai: Euskal Herriko gizarteak ze aldaketa bizi izan ditu azkenengo urteotan?

X.A.: Aldaketarik nabarmenetakoa, besteak beste, bezkuntzari dagokio: gure garaietan inork gutxi zeukan eskolara joateko aukera; gaur egun bezkuntza gizarte osoari zabaldua dago. Erligio eta moral mailan eman diren aldaketak ere aipagarriak dira. Turismoak ere asko eragin du: inoiz baino gehiago irteten gara kanpora, eta horrek munduaz dugun ikuspegia aldatzen du. Euskal Herriak, bestalde, duela urte batzuk etorkin ubolde izugarria jasan behar izan zuen,

eta basiera batean mugimendu bark kaltetak baino, ez zigula ekarriko pentsatzen bagenuen, ni ziur nago, denboraren poderioz, horrek guztiak gure herria aberastu eta potentziatuko duela. Aldaketa guztiak nolabaiteko indarkeria sortzen du gizartearen, gauzak bere izateetik irteten direlako, baina poliki-poliki gauzak bere onera itzultzen dira beti.

Ai: Zer nolakoa iruditzen zaizu gaur egungo Euskal Herriaren egoera?

X.A.: Herri bonetan betidanik, eta baita orain ere, izan dugu gauzak okerrera doazen psikosia. Oso

pesimistak gara. Niri herri-z. bide onetik goazela iruditzen zait, eta aurrera egingo dugula. Genetikoki herri tradizionalista gara, baina da, gureari eusteko joera eta indarra izan dugu beti, eta aurrerantzean ere bala izango dela uste dut.

"Euskaldunok genetikoki beti izan gara herri tradizionalista"

Ai: Zehaztuko al zeniguke egoera?

X.A.: Ekonomia mailan asko aurreratu dugu. Orain dela hamabost urte diru guztia Estatuaren esku zegoen, langilegoa ez zegoen antolatuta. Gaur egun Euskal Herriak berak, kompetibitatearen erronka irabazia duela uste dut: Europa mailako egitura ekonomikoetan konpeltitzeko prest gaude. Ongizate gizarteari dagozkion lorpen handiak dauzkagu: sorospideak, seguritate soziala... Egia da Frantziatik gora herri askotan gu baino bobeto bizi direla, baina behera begiratzen badugu, hemen baino bobeto inon ez daudela konturatuko gara. Gure soldatak, adibidez, Espainiako al-tuenak dira. Egoera politikoari dagokionez, jeltzaleok herriari agindutakoa bete dugu: gure aurrekoen botere maila, gutxienez, lortuko genuela esan genuen, eta hortik gora egin dugu. Estatutuan aitortutako kompetentziak eskuratu-takoan estatu baten pareko botere maila izango dugu. Bestalde, gaur egun European autodeterminazio eskubidea onartuta dago, eta hori aldarrikatzeko ez dago pistola beharrik. Erreferenduma eskatzen dute batzuek. Ni behintzat, alde zurririk galtzaille aterako naizela dakidan auzi batean ez naiz sartuko: nafarrei eta beste euskaldu-

nei beratek baino bobeto antolatuta gaudela eta beratek baino bobeto bizi garela erakutsi behar diegu, eta orduan etorriko dira gurekin. Subiranotasimetik oso burbil gaudela esango nuke. Euskarari dagokionez, jakin berri dut. Araban baurren %4a baino ez dela A erduan matrikulatu, horrek esan nahi du, baita eskuindarrek ere, beren seme-alabek euskara ikasi dezaten nahi dutela. Langabezia, droga eta beste arazo batzuk ere badauzkagu, baina horiek ez dira gure arazoak bakarrik.

Ai: Eta etorkizunari begira, zer?

X.A.: Intelektual frantses batek Frantziak gaur egun bizi duen egoeraren analisisa egin du, eta nik uste gure errealtatek ez dagoela oso urrun: Europar gerra ondoren gauzatu den ongizate gizartea krisian dago, ekonomiaren garapenak ez du integrazio soziala abalbiderratu, eta etsipena da nagusi. Bestalde, ez alderdi politikoak, ez sindikatuak, ezta intelektualek ere, ez dira etorkizunerako gizarte erdurik eskaintzeko gauza, eta borrotan berdin daude ezkerria zein eskuinta. Baina, horrezaz gain, kontuan hartzekoa da mundu mailan globalizazio mugimendu izugarria gauzatzen ari dela. Baina globali-

zazioak, ez du ekarriko, orain dela urte batzuk aurrakusi bezala, berrialde guztien homogeneizazioa: aitzitik, etorkizuneko komunikazio sistemak aniztasuna ekarriko du. Eta alde borrotatik Euskal Herriak historia bere alde daukela uste dut: herri txikiak, etorkizuneko gizartean aurrera egiteko gaitasun handiagoa izango dute, mugikortasun handiagoa dutelako.

“Historia herri txikien alde dago”

Ai: EAJ-PNVk etorkizuneko erronka berriei aurre egiteko, zein eredu zahar utzi behar izan ditu bidean?

X.A.: 1949. urtean, jadanik, Agirre lehendakariak idatzi zuen etorkizuneko estatuak, ezagutzen ditugun eran, desagertu egingo zirela, eta gizarte eredu berri bat ezarriko zela, eta esango nuke, Agirrek aurrakusitakoa betetzen ari dela, eta urte batzuen buruan guztiz beteko dela. Gure aurrekoek erbeste ezagutu zuten, eta oso egoera tristeia izan bazen ere, Europar barreman interesgarriak izateko

aukera izan zuten. EAJ-PNV inoiz ez da ideologia handiren lagun izan, eta oinak hurrean dituela egin du beti lan. Horregatik, etorkizuneko ere, agintariei zuburtzia bantiz jokatzeko aholkatuko nieke. Beraz, gure aurrekoen ildoari jarraituko diogu guk, eta horregatik gaur egun honako hau da gure helburua: Europa mailako integrazioa, beste edozein estatuk duen abalmén eta eskubide maila bera edukiz. Euskaldunok Europar integrazteko ez dugu ez Espainiaren, ez Frantziaren bitartekaritzarik behar.

“Autodeterminazioa bakearen giltza dela esatea ridikuloa da”

Ai: Kalean presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatzen ari dira.

X.A.: Hori taktika bat besterik ez da. Lehen presoak espetxeetatik ateratzeko eskatzen zuten, orain berriz Euskal Herriratzeko. Garbi dago ETAn presoek kolektiboak komando batek adina indar duela, eta horregatik ez zaie presoak kaleratzea komeni, besteak beste, bien bitartean, presoek senide eta lagunak zuzpertzeko eta sentibilizatze-ko balio duelako. Dispertsioa, bain zuzen ere, preso kolektiboari indarra kentzeko ezarri zen. Bestalde, ikusita daukagu, guk presoak kaleratzeko abalegina egiten dugunean, ez zaiela batere gustatzen. Bakea nahi dutela diote, eta horretarako giltza autodeterminazio eskubidea dela, eta niri hori ridikuloa iruditzen zait. Espainiako gobernuak, Suarezekin eta baita Gonzalezekin ere, ETArekin negoziatzen saiatu den bi alditan, ETArekin beraren erruz, negoziazioak porrot egin du. Dena den, niri iruditzen zait ETA gero eta okerrago dagoela, eta aurrerantzean Europa mailako polizia eta botere judiziala ezarritakoan, are okerrago ibiliko dela. Ikusiko dugu nola bukatzen duten. ■



Inoiz baino entzule gehiago bildu ziren Kultur Etxean



Zizurkilgo Danenan jokatu zuen aurrenekoz futbolean

ZIZURKIL

HAMAZAZPI URTE EIBARKO ATEZAIN

Aurten bigarren aldiz jaso du Zamora Saria

Denboraldian zehar gol gutxien sartu dioten atezainari ematen diote Zamora Saria, eta aurten bigarren aldiz hamazazpi urtez Eibarko atezain izan den 36 urteko zizurkildarrak jaso du saria. Jose Ignacio Garmendiak, hala ere, saria berari ezezik, talde osoari ere dagokiola azpimarratu digu; talde lana funtsezkoa omen da. Denboraldia bukatu berri, aurki hasiko dira Jose Ignacioren-tzat eguneroko joan-etorriak Eibarrera. Hala ere, pozik jarraitzen du lanean; izan duen pozik handiena horrenbeste urtez futbolean eta Eibarren jokatzeko jarraitzea baita.

AJURRI

39. zenbakia 1996ko ekainaren 28a.

Zizurkilgo Danena taldean hasi zen jokatzeko, Hernanin lau urte eman zituen, eta hamazazpi urte zituela Eibarrek fitxatu zuen. Geroztik beste hamazazpi egun ditu bertan, eta taldeak aurrera egiten ikusteko poza izan du: hirugarren maila lehenengo, bigarren B ondoren, eta bigarren mailan orain. Nahikoa lan izaten du Eibarrek urtero mailari eusten, hala ere lortu dute. Eibarko afizioaren laguntza ezinbestekoa izan omen da: *"Oso afizio ona daukagu. Asko sufritzea tokatzen zaio, urtero taldea kilokolo ikusiz. Beren laguntza ezinbestekoa da"*.

Ezaugarriak

Euskal Herriak atezain onak ematen dituen ospea izan du beti: *"Taldea onenetan aurki ditzakegu bertako atezainak"*. Atezainak izan behar dituen ezaugarrietaz galdetu diogu zizurkildarrari, eta bi xehetasun azpimarratu digu: *"Behin zelaian sartuz gero, taldea zuzentzen jakitea, eta talde ikuspegi izatea"*. Atezaina penaltietan neurtzen ote den galdetu diogu jarraian: *"Penaltia botatzean atezainak berak bai-*

no erantzukizun handiagoa, jokalaririk dauka: buts eginez gero bark asko dauka galtzeko; atezainak berriz, baloia geldituz gero, asko irabazteko”.

“Atezainak zelaietan taldea zuzentzen jakin behar du”

Talde apala da Eibar; langilea, ordea, eta baita jokalaria gazte askorentzat Errealera edota Athletic-era urra-tsa emateko zubia ere. Gaur egun Eibarrek gipuzkoarrekin baino bizkaitarrekin harreman estua goa duela esan digu, “nabiz eta ni Errealaren jarraitzailea izan”, zehaztu digu. Gure solasaldian Erreal eta Athletic aipatu ditugunez, haien arteko liskar eta eztabaidei buruzko iritzia eskatu gabe ezin geratu: “Izugarritz-ko pena hartzen dut talde bateko eta beste talde jarraitzaileak borren liskartuta ikustean. Gaur egun dauden arazoak bi taldeetako zuzendaritzak eragindakoak dira, eta beraien konpondu beharko litzukete, zaletuak sartu gabe”.

“Kirolak ez dauka negozioarekin zerikusirik”

Orain baino lehen, Eibarren egin dituen hamazazpi urteetan, beste talde batean aritzeko aukera izan ez ote duen galdetu diogu. Baietz erantzun digu, “bala ere bere garaian ez nintzen urrats hori ematera aurtu”, zehaztu digu. Goi mailako nahiz behe mailako jokalariek, guztiak, lehenengo eta behin kirolariak direla zehaztu digu Garmendiak: “Diru asko irabazteko modua izan arren, gustatzen ez bazaizu alferrik da: kirolariaren bizimodua oso gogorra da”. Hala ere, gaur egun komunikabideetan futbola hizpide duten saio eta albiste guztiek kirolarekin berarekin askotan zerikusi

gutxi dutela uste du Garmendiak: “Kirola eta negozioa ezberdindu behar dira: kirolariak eta interesdunak ezberdindu behar diren bezala”. Alde horretatik, gaur egun futbolaren inguruan, eta futbolaren izenean gehiegikeria handiak egiten direla esatean bat dator zuzurkildarra.

Beste denboraldi bat

Jose Ignacio Garmendia inongo gehiegikeriatik urrun, txikitatik futbola gustatu eta bide polita egitea lortu duen gizona da, eta oraindik ere Eibarren beste denboraldi bat gutxienez, egingo duelakoan dago. Horixe da behintzat, bere helburua.



Aurki hasiko ditu entrenamenduak

SILIKONADUN PAPERA RELEASE PAPERS

Flenoplastikozko laminadun eta poliesterezko paper desmoldagarria.

Paper for the manufacturing of phenoplastic laminates and polyester in line.

1974. urtean sortutako enpresa


itasa

Company y created in 1974

INDUSTRIAS DE TRANSFORMACIÓN DE ANDOAIN, S.A.
Sorabilla auzoa z/g • 20140 ANDOAIN (GIPUZKOA),
Tel: (43) 59 24 51 • Fax: (43) 30 06 32

Zabala

Ordukari Bitxitegia



RACER


LOTUS

TISSOT

SEIKO

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari eparantza, 5 - ☎ 33 23 41 - HERNANI

ASTEASUKO KOADRILA SAGARDOTEGIAN. 1964



- | | | |
|--|--|--|
| 1. Antonio Mendizabal
(<i>Gorta Barrena</i>) | 7. Eleuterio Tapia (†)
Trikitilaria | 13. Andres Bitoria |
| 2. Juan Albizu
(<i>Gurutzea</i>) | 8. Felix Elozegi
(<i>Opin</i>) | 14. Isidro Tapia
(<i>Niarrote</i>) |
| 3. Agustin Sarasua (†)
(<i>Aitzeko Kamineroa</i>) | 9. Jose Mari Otegi
(<i>Agiñazpi</i>) | 15. Antonio Garitano
(<i>Lambitegi</i>) |
| 4. Migel Mari Arregi
(<i>Lasa</i>) | 10. Agustin Arretxe
(<i>Ollotxe</i>) | 16. Juan Usandizaga
(<i>Elorrieta</i>) |
| 5. Ambrosio Oñazpi
Txistularia | 11. Benito Otegi (†)
(<i>Agiñazpi</i>) | 17. Jesus Albizu
(<i>Gurutzea</i>) |
| 6. Eusebio Otegi
(<i>Agiñazpi</i>) | 12. Juan Mari Tapia
(<i>Amasiturri</i>) | 18. Jesus Otegi
(<i>Txikirri</i>) |

Aiztiko Juan Mari Zabalak atera zuen 1964. urtean honako argazki hau. Sagardotegi garaia izango zela pentsatzen dugu, argazkiaren atzealdean ikusten den autobusak eramán baitzuen egun hartan koadrila Astigarragako Barkaiztegi sagardotegira. Autobusa "Zapatateikoa" da.

Orain ez bezela, autobusez joaten zen orduan herriko koadrila urtero sagardotegiren bat edo bestera, trikitixaz lagunduta, gainera. Ambrosio Oñazpi txistulariak eta Eluterio Tapia soinu-jole zenak laguntzen zieten normalean horrelako irteeretan.

Informazio emaila: Migel Mari Arregi

ISABEL JAUREGI

Andoaindarra; fruta saltzailea



- Beste azokaren batera joaten al zarate?

- Andoain, Errenderi, Lasarte, Orio eta Iruran izaten gara. Horrezaz gain, dendan saltzen dugu.

- Zenbat denbora daramazu salmentan?

- Hogei urte inguru.

- Andoainen nolatan daude bi azoka egun?

- Herri bakarra da, nik dakidala. Orain dela urte batzuk borroka handiak egin genituen bi egunak mantentzeko: astearte eta larimbata. Dendariak kexatzen hasi zirelako hasi ziren eztabaidak. Haien iruditzen zaie guk ez dugula ezer ordaindu behar edo... Kalez kaleko saltzaileok asko ordaintzen dugu. Gainera, nik uste guztion onerako dela azoka: azokara datorrena beste dendaren batean ere sartzen da bide batez, eta horrek dirua mugitzen du.

- Gustura al zaudete Choperal-ean?

- Udala beti ari da azoka babestu behar duela esanez, baina ez dakit noiz ikusiko dugun borrelakorik. Komunak ere jartzeko daude. Orion bakarrik dago azoka itxia, gainerako herrietan hemen bezala gabiltza.

- Gogorra al da ofizioa?

- Inongo laguntzarik ez edukitzea da okerrena. Lana bestela ere, nabikoa gogorra da: botz badago botz, eta bero badago bero. Eguneko soldata ateratzen nahi baduzu, etorri beharra daukazu.

- Gero eta saltzaile gehiago daude?

- Garbi dago: langabeziak saltzaileak sortzen ditu. Nik guztiak errespetatzen ditut, nabiz eta kompetentzia gogorra izan; denok jan behar dugu.

- Azoka ala denda?

- Nik denda ere badut, baina azokak aukera gehiago eskaintzen dituela uste dut: fruta adibidez, aukera gehiago dago, eta prezio ezberdinak: arrautzak beste bainubeste; bestalde, arropa, fruitu leborrak, makailoa eta beste gauza asko daude azokan bertan. Erosleak bata eta bestea ikusi eta konparatzeko aukera dauka. Ikusita dago jendeak azoka oso gogoko duela, hemen eta toki guztietan.

- Choperal-ean zenbat saltzaile zaudete?

- Asko, eta gebientsuenok fruta saltzaileak gara. Ni, bala ere, aldamenekoari gehiegi begiratzen dion borietakoa ez naiz; nik neurea egiten dut, eta kitto. Badakit garesti saltzen dudan ospea daukadala, baina nik badakit bezeroei zer eskaintzen didan. Nabizago dut garestixago baina ona eskaini. Jendea ia aspertu da balizko mahuka borietaz. Ona baldin bada, ordaindu beharra dago. Herri bakoitzera gainera, kalitate jakin bat eraman behar da, bezeroen arabera: batera on-ona, bestera maila bajuxeagokoa. Andoainen adibidez, jendeak kalitate oneko gauzak baino ez ditu nahi.

PERTSONAIA EZKUTUA



Oskar Gómez Rama andoaindarra izan da oraingo honetan *personaia ezkutua* lehiaketako irabazlea. 20 urteko gazte honek Babexa kafetegian beste zazpi lagunekin merienda paregabea egiteko aukera izango du. Izan ere, berak asmatu baitu zein zen zirriborroaren atzean ezkutatzen zen pertsonaia ezkutu aski ezaguna: Txiribiton pailazoa.





BABEXA
KAFETEGIA

Urtebetetzetako
meriendak

KALEBERRIA, 12 - TELF 59 27 52

ANDOAIN

IBILALDIAK

ANDOAIN

Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta:

Uztailak 13-14: Logibar-Holtzarte-Sarimendi (1.484m)-Kakoe-ta. Bost ordu t'erdiko ibilaldia.

BILLABONA

Aizkardi mendi taldeak antolatuta:

Uztailak 13-14: Neouvielle (3.192m)

IKASTAROAK

ANDOAIN

Uztailak 1-11: Udal musika eskolak antolatutako **informatika musikala ikastaroa: Finale 3.2.1. eta beste batzuk**. Ikastaroa Donostian izango da San Francisco kaleko 28.ean. Irakaslea: Jose Manuel Crespo Cestafe. Ordutegia: 9.00-14.00. Ikasle kopuru mugatua: 12 lagun. Prezioa: 15.000 pezeta. **Izenematea: Udal musika eskolan**. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu telefono honetara: 30 06 56.

LEHIAKETAK

ZIZURKIL

Urkamendi Elkarteak antolatuta, Pedro Maria Otaño I. bertso paper lehiaketa: lehiaketa **Andoain, Billabona-Amasa, Zizurkil, Asteasu, Aduna, Larraul eta Alkizako herritarrei zuzenduta dago**. Bi mailatan bereiztuko dituzte partehartzaileak: batetik, 16 urtera arteko gaztetxoak, eta bestetik, hortik gorakoak. Gaztetxoaren artean bi sari banatuko dira: lehenengoak 15.000 pezeta eta Patxi Otegiren eskultura bat jasoko du, bigarrenak, berriz, 10.000 pezeta. Helduen artean ere beste bi sari banatuko dira: lehenengoak 20.000 pezeta eta Patxi Otegiren beste eskultura bat jasoko du, bigarrenak, berriz, 10.000 pezetako saria izango du. **Lanak uztailaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira Zizurkilgo Kultur Etxean.**

BESTE

UDALEKU IREKIAK

ADUNA

Uztailaren 4tik aurrera goizeko bederatzietatik ordubatak bitartean udaleku irekiak hilabete osoan zehar. Interesatuak udal-etxean jaso dezakete informazio gehiago.

ASTEASU

Uztailaren zehar udaleku irekiak. Informazio gehiago Kultur Etxean.

ZINEMA

BILLABONA

Gure zinema aretoan

Ekainak 28 - 29 - 30 eta Uztailak 1

"Decisión crítica"

Uztailak 5 - 6 - 7 - 8

"Abajo el Periscopio"

Uztailak 12 - 13 - 14 - 15

"Prisionero del cielo"

KOMOKIA



PUBLIZITATEA

ARANBURU
 agentzia
 Aseguruak - Aholkularitza
PROFESIONALAK GARA
 Kaleberria, 26 behea
 ☎ 59 08 14
ANDOAIN *winterthur*

Patxi
Beltz
 Taberna
 Kaleberria, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49


ZUBI
AUTO ESKOLA
 Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL.

AURRERA
TABERNA
 Girorik ederrena gazteriarentzat!!
ZIZURKIL


VAC VAC **HOL - ATZ** 
 VACSOL - WR' TRATAMENDUA EGURRARENTZAT
OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA
PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA
 Elbarrena, 2/g.
 ☎ 69 30 63 - 69 07 34
 ADUNA


ogi berezi eta
artesanuak
... etxerainoko
zerbitzua
OGI ZURI OKINDEGIA, S.L.
OGI-GOXO


 • TARTAK • IJITO BESOA • PASTELAK
 • TELAK-ZIGARRILOAK
 • HOJALDREAK • MAGDALENAK
 Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA


BRONTE
 ZENTRU
 OPTIKOA
ZURE IKUSMENA
GRADUATZEN DUGU
KONTAKTU LENTEAK
GORRENTZAKO APARAILUAK
 Kale Berria, 36 - ☎ 69 25 25 - BILLABONA

BRONTE
 ORTOPEDIA
NEURRIRA EGINDAKO ORTESIAK,
PROTESIAK eta PLANTILAK
TAILERRA BERTAN
OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA
 Kale Berria, 36 - ☎ 69 25 25 - BILLABONA
 RPS. nº 53/96

JOSE ANTONIO URBIETA
GARRAIOAK
URTE OSOAN
SU EGURRA
 BELARRA ETA LASTOA BERE GARAIAN

 Lege Zaharren Enparantza, 4 -2
ASTEASU (Gipuzkoa)
 ☎ 69 26 76 - 69 30 92


Joseba
Haltzariak
 Kaletxiki, 6 Fax - Telf. 59 07 61
ANDOAIN


 • **kutxa fundazioa**
 • **fundación kutxa**
 • gipuzkoa donostia kutxaren
 • gizarre-ekintza
 • obra social
 • de la caja gipuzkoa san sebastián
 Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
 En la edición de esta publicación colabora:

ASTEASU

SAN PEDRO jaiak 1996

EKAINAK 28 OSTIRALA

16.00etan: **ASTEASUKO XXI. TXIRRINDULARI PROBA**
ELITE eta SUB - 23 mailakoentzat

23.00etan: **Dantzaldia TRABUKO taldearekin**

EKAINAK 29 LARUNBATA

18.30etan: **"OZENKI" musika taldearen kalejira eta kontzertua**

21.30etan: **HERRI AFARIA**
Ondoren: **Dantzaldia EGAN BERRIA taldearekin IRAUNKORRAK txaranga**

EKAINAK 30 IGANDEA

11.00etan: **EUSKADIKO SOKA-TIRA TXAPELKETA**

Mailak: 640kilo eta 680kilo
Taldeak: Nuarbe, Gaztedi, Mutriku, Gohierri eta Getxo

17.30etan: **GIPUZKOAKO HARRIJASOTZAILEEN TXAPELKETA** (Harri txikiekin)

- EGI
- IZETA
- OLIDEN
- BEGIRISTAIN

23.00etan: **BERTSO SAIOA**

- EGAÑA
- PEÑAGARIKANO
- SARASUA
- MENDILUZE

Ondoren: **Dantzaldia AKELARRE taldearekin**



UZTAILAK 1 ASTELEHENA

23.00etan: **Herri kirolen PENTATLOIA**

23.00etan: **Dantzarien erakustaldia**

23.00etan: **Dantzaldia TRAKETS taldearekin**

UZTAILAK 2 ASTEARTEA

14.30etan: **Haurren bazkaria**

18.00etan: **UNTZI PIRATA ikuskizuna**

antzerkia
magia
jolasak
musika

Arratsalde eta gauean

Dantzaldia BAKARNE EZKERRA ANDONI EZKERRA eta AITOR LANDA trikitalari taldearekin

JAI ZORIONTSUAK HERRITAR GUZTIOI

ONGIETORRIAK SAN PEDRO JAJETARA HURBILTZEN ZARETEN GUZTIAK